

Maritxu Olazubi Etxeberria Lexia
Azpeitia, Gipuzkoa
(1925-2012)

Aurkibidea

Biografia



Azpeitiko Errebal kalean jaioa. Aita Leizia baserrikoa eta ama Odriakoa zituen. Aitaren baserriaren izenetik dator kio 'Lexia' ezizena. Maritxuk hiru urte zituela, familia Eliz kalera joan zen bizitzera, eta ezkondu zen arte bertan bizi izan zen. Esklabetan ibili zen eskolan. Zerbitzari eta neskame lanetan aritu zen aurrena Azpeitian, eta Zarautzen gero. Alpargata josten ere aritu izan zen lanean. 22 urte zituela, [Julian Arrutirekin](#) ezkondu eta estazio aldeko "Oriyo" etxera joan ziren bizitzera. Bost seme-alaba izan zituzten (hiru seme eta bi alaba).

Zintak

AZP-086

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze
- **Data:** 2011-06-28
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Aita kartzelan, senide batek salatuta

- **Erref:** AZP-086/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:06:33

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Nazionalak Azpeitia hartu zuten egunean, arratsaldean amarekin joan zen plazara zer ikusiko. Hurrengo egunean, senide batek salatuta, Maritxuren aita kartzelara eraman zuten bi erreketeta eta guardia zibil batek. Bi ume geratu ziren amarekin. Mendira joaten ziren jateko bila. Gosea pasa zuten. Loiolan zeuden gudariak jatekoa ematen zien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com